



BIZKAIKO
GENERO
INDARKERIAREN
BEHATOKIA

**2018KO
JARDUERA-
MEMORIA**

Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Zer da Behatokia?	5
3. Kideak	7
4. Araudia	15
5. Lan Planaren garapenaren laburpena	16
6. BGIBk 2018an egindako jarduerak	20
a. Osoko bilkurak	20
i. Martxoaren 19ko bilera	
b. Adierazleen Lantaldea (AL)	21
i. Ekainaren 19ko bilera	
ii. Urriaren 19ko bilera	
c. Kanpo-harremanak	25
d. Webgunea	26
e. Udal Harremanetarako Sarea (UHS)	30
f. Informazioa kudeatzeko sistema osoa	32
g. Baliabideen mapa	34
h. Baliabideen atlasa	37
i. Zifren aurrerapena Bizkaiko Lurralde Historikoan	39
j. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak	40
k. Aldundiaren, udalen eta mankomunitateen baliabideen katalogoa emakumeen aurkako indarkeria-arloan Bizkaiko Lurralde Historikoan	44
l. Udalerrietako Informazio Orria	48
m. Lineako dokumentu-kudeatzailea	51
n. BGIBren informazio-buletina	53
ñ. Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. Gidaliburua	56

1. Aurkezpena

Errealitatea ezagutzea eta zabaltzea Behatokiaren jarduerari modu bereizezinean izaera eta zentzua ematen dioten bi helburuak dira. Bien arteko koherentzia ere bilatzen da eta jarduera eta emaitza guztiek oinarri gisa balio izatea elkarren artean indartzeko eta urrats izatea ezagutzan sakontzeko eta esku-hartze alor eta maila ezberdinetan zabaltzeko.

Ildo horretatik, 2018an **“Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua”** landu eta zabaldu da, egin daitezkeen esperientzia ugarien artean aukeratzeko irizpideekin. Behatokiko lantaldeak egin eta 2017an argitaratutako **“Emakumeen aurkako indarkeriaren gainerako erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” txostenaren III. edizioan** bildutako emaitzetan oinarritzen dira irizpide horiek. Hauek dira aipatutako irizpideak: genero-indarkeria emakumeen giza eskubideen urraketa den aldetik jorratzea, premia bereziak dituzten kolektiboak ikusaraztea eta adingabeak genero-indarkeriaren biktimarela aitortzea. Ardatz horien artean erakunde publikoek eta bestelako elkarte eta profesionalek estatu, autonomia, lurralde eta udal mailan egindako 21 praktika biltzen dira; prebentzioaren, errealitatearen ezagutzaren eta laguntzaren alorretan landutakoak dira, gure lurralde-eremuan ideia eta proiektu berriak ekarriko dituztelakoan.

Ezagutzaren zabalkundea hobetzearen ildo beretik, aurtan lehen aldiz Zifrak txostenean jasotako **Arretari buruzko datuen laburpena** eskaini da formatu independentean, horien ikuspegi orokorren berri bizkor izatea interesatzen zaienei kontsultatzea erraztuko dielakoan.

Behatokiko 2018ko jardueren artean, berrikuntza espezifikoez gain, aurreko urtean lehen aldiz txertatutako jarduerak finkatu egin dira; horren adibide da laguntzari buruzko zifren aurrerapendokumentua eta lehen analisia, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” txostenaren urteko argitalpenaren aurretik; baita hauek ere: emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arretako datuen eta eskura dauden baliabideen datuen bi bilketa, sei hilekoko eta urtekoa, datuak egiaztatzeko prozesuak, “Zifrak” bildumako hamalagarren txostena eta “Baliabideak 2018” txostena egitea, “Udalerrietako Informazio Orriak” egitea eta hedatzea azaroaren 25ari begira, udalek eta mankomunitateek erabili ditzaten, kontsultako tresnak (Atlasa, Mapa eta Dokumentu-kudeatzailea) eguneratzea, lau informazio-buletin egitea eta erakundeek, udalen eta herritarren eskaerei erantzutea.

BGIB buletineko "Sarean" atalean lurraldeko 27 udalerrik eta mankomunitatek hartu dute parte urteetan zehar, 2017an barne, Bizkaiko herritarren gehiengoak bilduz. Genero-indarkeriaren aurkako erakundeek borrokan diharduten teknikarien eta arduradunen iritziak, ideiak eta esperientziak jaso ahal izan dituzte. 2018an, atala berbideratu egin da antzeko funtzioak dituzten beste behatoki eta erakunde batzuei ere presentzia emateko.

Erakunde horien eta beste batzuen partaidetza eskuzabalari esker, bereziki horietako profesionalei esker, 2018an informazio eta hausnarketa interesgarriak eskaini ahal izan ditugu gure esku-hartze eremuan. Hori posible izan da BGIBren Lantaldean eta osoko bilkuran eta udaletatik eta mankomunitateetatik etengabe ahalegina egiten duten guztiei esker. Eskerrak eman nahi dizkiegu hauei guztiei gure argitalpenean egindako ekarpenengatik: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Behatokiko presidente Ángela Carmona Vergara eta Berdintasun eta Genero-indarkeriaren Unitateko buru Cristina Fabr  Rosell; Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiko Carmen Ure a, Genero Indarkeriaren Sentsibilizazio, Prebentzio eta Ezagutzarako zuzendariorde nagusia; Andaluziako Genero Indarkeriaren Behatokiko Montserrat Mu oz S ez, Azterlanen eta Programen Kabineteko burua; Marisa Soleto  vila, Mujeres fundazioko zuzendaria; eta gertukoak ditugun Bego a Fern ndez Alcalde, Ermuko Udaleko berdintasun-teknikaria, Mar a Luisa Jaussi Nieva, Berritzegune Nagusiko Eskola Inklusiboko aholkularia eta Leire Imaz Zubiaur, Berdintasunerako zuzendaria EHUn.

Helmuga bera dugula ziurtzat emanez, jarraian Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko jardueraren berri emango dugu xehetasunean.



M.   Teresa Laespada Mart nez

*Bizkaiko Genero Indarkeriaren
Behatokiko presidentea*

*Enplegua, gizarteratzea eta berdintasuna
sustatzeko foru-diputatua*

2. Zer da Behatokia?

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia (BGIB) kide anitzeko organoa da, zalantzak argitzekoa, martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretu bidez eratua, eta osaerari dagokionez, honako hauen bitartez aldatua: lehenik, azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretua, bigarrenik, otsailaren 2ko 5/2010 Foru Dekretua, hirugarrenik, maiatzaren 21eko 75/2013 Foru Dekretua eta azkenik 35/2016 Foru Dekretua.

Hasieran Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari atxikitako organoa bazen ere, 2015ean, foru-aldundian izandako antolaketa-aldaketen ondorioz, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari atxiki zitzaion.

Informazio-sistema bat eratzea da Behatokiaren xedea, eta sistema horrek gai izan behar du Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria behatzeko, aztertze eta jarraitze-ko, bai eta lan horixe bera egiteko ere indarkeria horren gaineko politiken garapenarekin, ezarpenarekin eta ondorioekin. Hori guztia, ezarritako baliabideak behar errealetara egokitzeko.

Behatokiak honako bi helburu nagusi hauek ditu:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera zein den jakitea, izan diren aldaketak aztertu ahal izateko.
2. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero-indarkeriaren arloarekin zerikusia duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetzeko.

Helburu horien harira, eginkizun hauek ditu Behatokiak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren genero-indarkeriako egoerei buruzko datu esanguratsuak barnean hartuko dituen aplikazio informatiko bat diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea.
2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisia egiteko organo iraunkorra izatea.
3. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan zerbitzuek erabiltzen dituzten informazio-sistemak eta adierazleak hobetzera bideratutako gomendio eta proposamenak egitea.
4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanetan egotea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuetan abiarazitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea.
5. Genero-indarkeriaren hedadurari eta bilakaerari buruzko diagnosi-txosten teknikoak eta azterketak egin daitezen proposatzea.

6. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako neurri integralak egokiak diren aztertzea; horretarako, zer ondorio eta eragin dituzten ikertu behar da, eta jardunbide egokien ereduak aztertu.
7. Bizkaiko genero-indarkeriaren eremuan eragina duten baliabideen eskaintzak hobetzea bultzatzeko gomendio eta proposamenak egitea, eta haiek dagozkien erakundeei iritsaraztea.
8. Genero-indarkeriaren eremuan ikertzen duten taldeen azterketa- eta analisi-lanak errazteko truke- eta komunikazio-foro bat eratzea.
9. Behatokiak urtean zehar garatzen dituen jarduerari buruzko urteko txostena igortzea, eta horri buruz jakinaraztea Bizkaiko Batzar Nagusietan.
10. Antolatze eta funtzionatzeko barne-araudia lantzea.

3. Kideak

Erakunde publikoetako (hots, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barneko botere autonomikoetako, foru-botereetako eta toki-botereetako) erakunde-ordezkariek eta emakumeen elkarte-mugimenduko ordezkariek biltzen ditu Behatokiak: estrategien aplikazioan eta baliabideen helmugan diharduten entitateak, genero-indarkeriaren aurkako ekimenak koordinatzeko.

2018. urtearen amaieran honela osatuta zegoen Behatokiko osoko bilkura:

PRESIDENTZIA

Enplegua, gizarteratzea eta berdintasuna sustatzeko foru-diputatua

M.^a Teresa Laespada Martínez andrea

PRESIDENTEORDETZA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Oscar Seco Revilla jauna, Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia

IDAZKARITZA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua

MAHAIKIDEAK

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

Izendatu gabe

(2018ko azaroa arte: *Isabel Zárraga Buzeta andrea*, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua)

Honako hau adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 FORU DEKRETUAK, urtarrilaren 26koak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duenak: "Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea eta, horretarako, zerbitzuak ematea egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jarriko du babesgabetasun-egoeran dauden edo tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatuko ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatuko, genero eta dibertsitatearen kudeaketaren arloko politiken bidez"

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusia

María Guijarro Ceballos andrea, Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusia

Honako hau adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 FORU DEKRETUAK, urtarrilaren 26koak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duenak: "Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea eta, horretarako, zerbitzuak ematea egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jarriko du babesgabetasun-egoeran dauden edo tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatuko ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatuko, genero eta dibertsitatearen kudeaketaren arloko politiken bidez"

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Enplegua Sustatzeko zuzendaritza nagusia

Alfonso García Alonso jauna, Enplegua Sustatzeko zuzendari nagusia

Honako hau adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 FORU DEKRETUAK, urtarilaren 26koak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duenak: "Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartearen berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea eta, horretarako, zerbitzuak ematea egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jarriko du babesgabetasun-egoeran dauden edo tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatuko ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatuko, genero, dibertsitatearen kudeaketa eta lankidetzeta eta garapenaren arloko politiken bidez"

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Anselmo Ardanza Sustatza jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea

Bizkaiko Foru Aldundiaren 86/2016 FORU DEKRETUAK, maiatzaren 10ekoak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duenak adierazten du Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak hainbat eskumen dituela; besteak beste, Foru Aldundiaren modernizazioa, gobernamentu ona eta gardentasuna; udal-harremanak, eta, azkenik, Herri Administrazioaren arloko zenbait eskuduntza, hala nola foru-langile publikoen araubide juridikoa, foru-sail guztien interesekoak diren zerbitzuak edo jarduerak eta Foru Aldundiaren eskumenekoa izan eta beste sailei berariaz esleituta ez dagoen beste edozein gai.

EUSKO JAURLARITZA

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

Izaskun Landaia Larizgoitia andrea, zuzendaria

Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, berdintasunaren alorreko politikak diseinatzeko, bultzatzeko, aholkatzen, koordinatzen eta ebaluatzen ditu, eta gizartearen sentikortzeko lana egiten du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazko eta efektiboa lor dadin Euskal Autonomia Erkidegoan. Zazpi eremu funtzional ditu, eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko xedea du horietako batek.

Emakunderen egitekoa da, besteak beste, honako funtzio hauek betetzea, hori agintzen baitiote otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak --lege horrek aldatu egiten du, era berean, Emakunde sortzeko den otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. artikulua-- azken xedapenetako lehenengoan eta urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak, Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak bultzatzea, eta EAEko herri-botereei horretaz aholkuak ematea eta haiekin lankidetzan aritzea, batez ere emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko trebakuntza-planak --emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko planak barne-- diseinatzeko; eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko dauden zerbitzu eta programen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzea.

Segurtasun Saila

Ana María Reka Esparza andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 83/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Segurtasun Sailari dagozkio eskumen hauek: Autonomia Erkidegoko polizia; hauteskunde-administrazioa; babes zibila, eta larrialdiei aurre egitea; Autonomia Erkidegoko errepideetako trafikoko polizia; joko, apustu eta ikuskizunak; segurtasun-arloko transmisio eta komunikazioak; polizia-ibilgailuak; meteorologia; sailari atxikitako erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak (Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia) zuzentzea, legeen eta araudien arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.

Lan eta Justizia Saila

María Dolores de Juan de Miguel andrea, Justiziako zuzendaria

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 84/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Lan eta Justizia Saila bi Sailburuordetza hauetan banatzen da: Lana eta Gizarte Segurantzak, eta Justizia. Justizia Sailburuordetzaren egitekoak dira Botere Judizialarekiko harremanen arretarekin lotutako eskumenak eta haien funtzionamendu egokirako bitartekoak ematea, besteak beste.

Justizia Zuzendaritza Sailburuordetza horren mende dago, eta eskumen hauek ditu, besteak beste: Delituen biktimak diren pertsonen eskubideak bermatzea eta sustatzea, Delituen Biktimaren Estatu-tuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean eta hura garatzen duen araudian ezarritakoa betez; zigor- eta espetxe-legeria betetzea, bere eskumenaren esparruan, Gobernuak esparru horietan egiten dituen gainerako jarduerekin koordinatuta; epaileak aginduta, Familia Elkarguneak sortzea eta kudeatzea.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Emilio Germán Sola Vallojera jauna, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 75/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Saila bi Sailburuordetzatan antolatzen da: Enplegua eta Gazteria, eta Gizarte Politikak. Azken horren mendekoa da Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, eta horri dagozkio Genero-indarkeriaren biktimak izan diren Emakumeak Telefonoz Artatzeko Zerbitzuari buruzko egitekoak, ordainketa bakarreko diru-laguntzak eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalei aholkua eta laguntza emateko kudeaketa integratua.

Sail horri atxikita dago Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.

Osasun Saila

Fátima Ansotegi Elordi andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 80/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Osasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Osasun Sailari dagozkio eskumen hauek: osasun-esparruaren plangintza eta antolamendua; osasun publikoa eta elikadura-higienea; zainketa epidemiologikoa; farmazia-antolamendua; droga-menpekotasunak; eta sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera.

Sail horri atxikita dago Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko entitate publikoa.

Hezkuntza Saila

Olatz Garamendi Landa andrea, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 79/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Hezkuntza Sailari dagozkio eskumen hauek: irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorrekoak, bai erregimen berezikoak, etapa eta maila guztiak barne direla, eta goi-mailako hezkuntza, bai eta bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere; lanbide-heziketa osoarentzako planifikazio estrategikoa, diseinua eta jarraibideak, heziketa horrek bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo emendatzea ekarriko du, eta hartarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzaren baliatuko da, betiere zerbitzu horren erantzukizunaren barruan; zientzia-alorreko politika; ikerketa teoriko zein aplikatua sustatu eta koordinatzea; sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK ETA MANKOMUNITATEAK

EUDEL

Galdakaoko Udala

Ibon Uribe Elorrieta jauna, alkatea

Ordezkoa: Keltse Eiguren Alberdi andrea, Getxoko zinegotzia

Foruko Udala

Jane Eyre Urkieta Zuzaeta andrea, alkatea

Ordezkoa: Alicia Hernández Cid andrea, Amorebieta-Etxanoko zinegotzia

Ermuko Udala

Beatriz Gamiz Mata andrea, zinegotzia

Ordezkoa: Aintzane Urkijo Sagredo andrea, Santurtziko alkatea

53/2003 Foru Dekretuak, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuenak, ezarritakoari jarraituz, EUDEL - Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko hiru udalerritako eta mankomunitatetako ordezkarik, Behatokiko osoko bilkuran parte har dezaten.

EUDEL - Euskal Udalerrien Elkarteak ere sinatu zuen, beste erakunde batzuekin batera, etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko akordioa, eta, horrez gainera, akordio horren Jarraipen Batzordeko kide ere bada.

EUDEL - Euskal Udalerrien Elkarteak osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerri guztiek. Hala, gainerako erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkarik egoki eta eraginkorra da politika publikoak koordinatzeko eta adosteko prozesuetan.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK

Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arloaren baitan sortutako "Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foro"aren ordezkari gisa:

BIDAYA – EMAKUME MUSULMAN GAZTEEN ELKARTEA

Hajar Samadi Samadi andrea

Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta, han, kontuan hartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten duten emakumeen kolektiboek egindako proposamenak. Era berean, Bizkaian emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako egiten diren foru-planen jarraipena egiteko mekanismo dinamikoak ezartzeko aukera ematen du.

Genero Indarkeriaren arlotik:

ARGITAN – Emakumeentzako Aholku Etxea

Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea

"ARGITAN" Emakumeentzako Aholku Etxea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak pairatzen dituzten emakumeen beharrei erantzutea du helburu, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela.

Batez ere lege- eta lan-aholkuak, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkuak ematen ditu. Horiez gainera, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten ditu, betiere, genero-ikuspegia oinarri hartuta (tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, eztabaidak), eta salaketa-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten du.

AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua


Marta Dolado Galíndez andrea, aholkulari juridikoa

Auzolan Laguntza Psikosozialeko Modulua irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta lanean dihardu 1982az geroztik, osasun-maila hobetzeko, alderdi bio-psiko-soziala landuz.

Honako arlo hauetan ematen du zerbitzu: laguntza psikologikoa, lege-aholkularitza, helduen, haurren eta gazteen osasun mentala, ugaltze-osasuna, alkoholismoa eta toxikomaniak.

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA

2018ko abenduaren 31n



4. Araudia

Ondoren xehaturiko arau-zerrendak behatokiaren sorkuntzari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko alderdiak bermatzen ditu. Azken dekretua 2016an onartu zen, eta Behatokiaren osoko bilkuraren osaieran egin behar diren aldaketak jasotzen ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren egitura organikoan egin diren aldaketen ondoren.

53/2003 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duena (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa).

188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa).

5016/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duena (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3koa).

5/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 29. zk., 2010eko otsailaren 12koa).

75/2013 FORU DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren, 100. zk., 2013ko maiatzaren 27koa).

35/2016 FORU DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 44. zk., 2016ko martxoaren 4koa).

5. Lan Planaren garapenaren laburpena

Labur azalduko ditugu, jarraian, zer jarduera egin diren 2018an, indarrean dagoen lan-plangintzatik.

Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak

Behatokiak bi mailatan egiten du lan: batetik, osoko bilkura, eta bestetik, Adierazleen Lantaldea (AL).

2018an, ohiko osoko bilkura bat egin zen martxoaren 19an. Honako hauek aurkeztu ziren saio hartan: Behatokiaren 2017ko Jarduera Memoria; Behatokiaren 2013-2017 epealdiko Ebaluazio Txostena eta Behatokiak 2018an garatu beharreko Lan Plana.

Adierazleen Lantaldeak bi bilera egin zituen, bata ekainean eta bestea urrian. Lehenengo bileran "2017ko zifrak" txostenaren aurrerapen-argitalpena aurkeztu zen. Txosten horren azken bertsioa urteko azken hiruhilekoan egindako bilerara eraman zen eta, horrez gain, "Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua" aurkeztu zen, hau da, Behatokiak lau urtean behin, bere eginkizunak betez, egiten duen gidaliburu horren edizio berria.

Hedapenarekin eta harremanekin lotutako zereginak

Administrazioetatik, hirugarren sektoretik eta herritarrengandik jasotako informazio- eta dokumentazio-eskariei erantzuten die Behatokiak. Bere lana hedatzeko eta ikusarazteko bide gisa, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko jarduerak eta horien emaitzak zabaltzen ditu Behatokiak bere webgunearen bitartez, Behatokiak berak sorturiko jardunak eta produktuak nahiz kanpoan sorturikoak, hain zuzen ere.

2018. urtean, webgunearen aldian behingo eguneratzeen bitartez gauzatu da zabaltze hori: Behatokiaren jardunarekin loturiko informazio egoki guztia sartu da, dokumentu-funtsa areagotu da argitalpen berriak erregistratuz, emakumeen aurkako indarkeriari buruz Bizkaian dauden baliabide guztiei buruzko informazioa eguneratuta mantendu da, eta arazo horrekin lotuta beste zenbait erakundek sortu dituzten azterlanak eta ikerlanak txertatu dira.

Bestetik, Behatokiaren *BGIB Buletinaren* aldizkako argitalpen horren bitartez, jarraipena eman diogu emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan kalitate handikoak eta egunekoak diren hainbat edukiren hedapenari, eta horren zehaztapenean Adierazleen Lantaldeko kideek parte hartu dute. "Sarean" atala, aurten arte Udal Harremanetarako Sarearen partaidetza jasotzera bideratua, aldatu egin da eta orain "Beste Behatokiekin Sarean" izena du eta BGIBrekin bat egiten duten behatokiaren lanari erreparatzen dio.

Datuak biltzeko prozesuak

Bizkaian emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan eskuragai dagoen informazioa biltzen eta aztertzen duen erakunde iraunkorra den heinean, Behatokiak urtero bi prozesu gauzatzen ditu lurraldeko zerbitzu publikoen jardunetik eta ezarritako egutegiaren arabera eratorritako datuak biltzeko.

2018ko lehen seihilekoan (martxoa), urteko datuen bilketa-prozesua abiatu zen, aurreko urtean (2017) zerbitzu publikoetako esparru sozialean, polizialean, judizialean, eta osasunaren eta hezkuntzaren esparruetan artatutako kasuen bolumena jakiteko; bai eta urtean (2018) operatibo dauden arretarako baliabideen eskuragarritasunari eta ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ere.

Iturri askotako datuak biltzen dira urteko prozesu horretan. Zehazki, 2018an, erakunde hauek emandako informazioa bildu da: Bizkaiko udalerriak eta mankomunitateak (112+9); Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua); Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (zenbait iturri); Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila (Azterlan eta Analisisien Dibisioa, eta Ertzaintzaren Zuzendaritza); Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saila (zenbait iturri); Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila (Hezkuntza Ikuskaritza); eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoa.

Horrez gain, iturri dokumental hauetatik ere jaso dira datuak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (prozesu judizialei buruzko datuak), Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua (auzitegi-medikuen arretari buruzko datuak) eta Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza (genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzerritarrei emandako bizileku-baimenei eta lan-baimenei buruzko datuak).

Urteko bigarren seihilekoan (iraila-urria), 2018ko lehen seihilekoari buruzko datuak biltzeko prozesuari hasiera eman zaio. Beste urte batzuetan bezalaxe, Lurralde Historikoaren barnean arretarako berezko baliabideak dituzten zazpi mankomunitateetako seik eta 22 udalerriek hartu dute parte datu-bilketa horretan, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (zenbait iturri), Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak (Azterlan eta Analisisien Dibisioa), Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailak eta Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak (ICASV) ere. Informazioaren bilketa osatzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako estatistikak kontsultatu eta bertatik datuak atera dira.

Aldizkako produktuak eta txostenak egitea

2018an, **urteko txostenen bi edizio** gauzatu eta argitaratu zituen Behatokiak:

- Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak emakumeen aurkako indarkeria-gaietarako: etxean eragindako tratu txarrak eta sexu-indarkeria. 2018
- Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta hezkuntzaren arloak. 2017

Lehenengoak informazio eguneratua ematen digu, aurrera doan urteari dagokiona, eta Bizkaian indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeei eta haien mendeko pertsonei eman beharreko arreta errazten duten foru- eta/edo udal-baliabide eta -zerbitzuen (edo udal-kudeaketa duten baliabide eta zerbitzuen) katalogoari buruzkoa.

Bigarrenak, berriz, 2017an artatutako kasuen bolumenari buruzko daturik garrantzitsuenak ematen ditu; datu horiek esku-hartzearen bost arlo hauetako zerbitzu publikoek eman dituzte: gizarte-babesa, polizia, justizia, hezkuntza eta osasuna, arlo horietan ezarri diren neurrien baitan. Txostenak bost bloke nagusi ditu, bat esku-hartze esparru bakoitzeko; era berean, bloke bakoitzak zenbait azpiatal ditu. Horietako bakoitzak txostenari dagokion erreferentzia-urteko datuen deskribapen-analisirako atal bat biltzen du, bilakaera-ikuspegiarekin batera, datuak alde batera utzi gabe; izan ere, datuak hainbat formatutan aurkezten dira, erabilera errazte aldera. Bilakaera-ikuspegi horrek adierazlearen historia eskaintzen du, zifren denborazko serieekin, kasu batzuetan, 2004tik aurrera.

Bigarren urtez jarraian, 2018an, "...Zifren txostena 2017" txostenaren **Aurrerapena argitaratu** da, eta, horri esker, urteko lehen seihilekoaren amaieran, analisiaren lehen emaitzak aurkeztu dira; hartara, zerbitzu publikoek aurkezten dituzten zifrak abiapuntu hartuta, Behatokiak sortzen duen informazioa hedatzeko epeak hobetu egiten dira.

Bestalde, ohiko joerari eutsiz, sei hilean behingo datu-bilketarekin amaitzeko, 2018an **"Udalaren Informazio Orria"** landu eta igorri da prozesuan parte hartzen duten -arretarako baliabideak dituzten- udalerri eta mankomunitate bakoitzera, azaroaren 25a baino lehen; parte hartzen duten tokiko udal-erakundeetarako lantzen den txosten indibidualizatua da "Udalaren Informazio Orria", eta izaera sozial, polizial eta judizialeko datuak jasotzen ditu, udalez udal banakatuta. Neurri horren bidez, udalerri bakoitzean erregistratutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko udalerrietako tokiko erakundeei gehiago jakiteko aukera ematen dien informazioa eskura jartzen du Behatokiak, kasu horien arretaren ardura duten zerbitzu publikoetatik ateratako datuak abiapuntu hartuta.

Azkenik, eta Behatokiaren ohiko eginkizunekin jarraitzeko, aztergai dugun ekitaldian honako **tresna hauek eguneratu dira**: "Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa", "Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlas" eta "Lineako dokumentu-kudeatzailea". Hirurek Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta-esparruetako emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan arreta emateko baliabideetatik ateratako informazioa biltzen dute. Arreta-sarearen berezitasunei eta dokumentu-funtsari buruzko informazioa da: berdintasun-planak eta -programak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, tokiko koordinazio-protokoloak, eta Europako nahiz nazioarteko dokumentazioa.

Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua

2018an Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua osatu zen. Lau urtez behin egiten den dokumentu horren edizio berri bat gehitu zaio aurrez 2006an, 2010ean eta 2014an egindako hirurei.

Gidaliburu hori egiteko erreferentziazat hartu da "Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jardura hobetzeko gomendioen eta proposamenen III. txostena Bizkaian" (BGIB, 2017); hortaz, dokumentu horretan identifikatutako hobetu beharreko alorrek bideratu dute laugarren gidaliburu hau osatzen duten jardunen hautaketa. Dokumentuak 21 praktika eta esperientzia biltzen ditu guztira gai hauen inguruan: Prebentzioa (% 19), Errealitatearen ezagutza (% 19) eta Laguntza: zerbitzuak, prestakuntza eta koordinazioa (% 62).

6. BGIBk 2018an egindako jarduerak

2018an egindako jarduerak azalduko ditugu orain.

a. Osoko bilkurak

2004. eta 2018. urteen artean, Behatokiak 23 osoko bilkura egin ditu.

2018an, osoko bilkura bat egin zen, martxoaren 19an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregian.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
		19									

Ondoren, bilera horretan landutako edukiak laburbilduko ditugu:

2018ko martxoaren 19ko bilera

Behatokiaren 2017ko Jarduera Memoria aurkeztu zen.

“Behatokiaren 2013-2017 epealdiko Ebaluazio Txostenaren” emaitza nagusiak azaldu ziren.

Behatoki 2018rako Lan Plana aurkeztu zen.

Bertaratutakoen eskura jarri zen Rosalind B. Penfold egilearen berrargitalpen hau, euskaraz eta gaztelaniaz: “Ondo maite nazazu: tratu txarreko istorio bat”. Argitalpen hori Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu zuen 2017an, azaroaren 25eko Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2018ko martxoaren 19ko bilera

b. Adierazleen Lantaldea (AL)

Adierazleen Lantaldearen (AL) sorkuntza Behatokiaren 2004ko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen, eta 2005eko urtarrilaren 20an bildu zen lehenengo aldiz. ALren helburuak honako hauek dira: batetik, datu zorrotzak eta fidagarriak izatea ahalbidetzen duten informazio-iturriak identifikatzea eta iturri horietarako sarbidea izatea; bigarrenik, eskuragarri dauden datuak ezagutzea eta biltzea; eta hirugarrenik, emakumeenganako indarkeriaren fenomenoaren larritasuna balioesteko adierazlerik egokienak ezartzea, homologa eta denboran aldera daitekeen oinarri bat edukita.

Etengabeko informazio-sistema bat ezartzearekin loturiko eginkizunez gain, lantaldeak bere gain hartzen du Behatokiaren osoko bilkurak enkargatzen dizkion gomendio guztiak lantzeko egitekoa.

Adierazleen Lantaldeak 63 lan-bilera egin ditu 2005 eta 2018 bitartean.

ALren osaera

Behatokiaren diziplina anitzeko ikuspegiari eusten dio lantaldeak, eta organoa osatzen duten atale-tako hainbat teknikariz osatuta dago.

2018an ez da aldaketarik egin foro tekniko horren osaeran.

Jarraian, 2018an ALn parte hartu duten eta/edo izendatuta zeuden erakunde eta pertsona ordezkarien zerrenda jaso dugu:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua (ALko koordinatzailea)
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusia
Aitziber Goitia Martínez andrea, Berdintasun Ataleko teknikaria

EUSKO JAURLARITZA

- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea
M.^a Socorro Álvarez Fernández andrea, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko arloaren arduraduna
Ordezkoa: Leyre Sologuren Etxenagusia andrea, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko arloko teknikaria.
- Segurtasun Saila
 - Azterlan eta Analisisien Dibisioa. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza
Gorka Rementeria Ortiz jauna, Azterlan eta Analisisien Dibisioko teknikaria
Ordezkoa: Txebi Yanguas Pérez jauna, Azterlan eta Analisisien Dibisioko teknikaria
 - Ertzaintzaren Zuzendaritza
Josu Gotzon Lujua Altuna jauna, Ertzaintzaren Bizkaiko lurraldeburua
Ordezkoa: Iñaki Elexalde García-Escudero jauna, Kalitatearen Ataleko burua
- Lan eta Justizia Saila
Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Carmelo Santoyo Alzuri jauna, EAEko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio-zentroko arduraduna (*Adierazleen Lantaldeko bileretako ohiko partaidea*)
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Ana María Aldekoa Arenaza andrea, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria
Ordezkoa: *Idoia Ebro Negro andrea*, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria
- Hezkuntza Saila
Marisol Antolín Herrero andrea, Berritzegune Nagusiko aholkularia
Ordezkoa: Izendatu gabe
- Osasun Saila
Idoia Perea Alvaré andrea, Berdintasuneko teknikaria
Ordezkoa: Miren Josune Ziarrusta Bilbao andrea, Osasun Sustapen eta Hezkuntzako teknikaria
ALren bileretako ohiko partaide da: María Eugenia Carranza Pérez andrea

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK ETA MANKOMUNITATEAK (EUEDEL)

- Ermuko Udala
Begoña Fernández Alcalde andrea, Berdintasuneko teknikaria

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK

- ARGITAN-Emakumeentzako Aholku Etxea
Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea
Ordezkoa: Aintzane Riancho Blanco andrea, abokatua
- AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua
Marta Dolado Galíndez, abokatua
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

ALren jarduera 2018an

Adierazleen Lantaldea, 2018an, urtean zehar deitua izan den bi aldietan bildu da, ekainean eta urrian.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailaren instalazioetan egin dira bilera horiek, Behatokiaren egoitzan, hain zuzen ere.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
					19				19		

Ondoren, bilera bakoitzean landutako edukiak laburbilduko ditugu:

2018ko ekainaren 19ko bilera

"Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta hezkuntzaren arloak. 2017" txostenaren aurrerapen-argitalpena aurkeztu zen.

2018ko urriaren 19ko bilera

"Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta hezkuntzaren arloak. 2017" txosten osoaren emaitza nagusiak aurkeztu ziren.

Behatokiaren argitalpen berriaren xehetasunak eman ziren: "Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua".

Bertaratutakoen eskura hainbat material jarri ziren, horien artean, Rosalind B. Penfold egilearen berrargitalpen hau, euskaraz eta gaztelaniaz: "Ondo maite nazazu: tratu txarreko istorio bat". Argitalpen hori Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu zuen 2017an, azaroaren 25eko Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2018ko ekainaren 19ko bilera

2018ko urriaren 19ko bilera

c. Kanpo-harremanak

Emakumeen aurkako indarkeria (eta oro har, herritar guztien indarkeria) arintzeko eta aztertzeko lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuak egindako informazio-eskaerei erantzuten die Behatokiak. Behatokiari egindako kontsultak argitzeko erabilitako baliabideak telefonoa eta posta elektronikoa dira, ovgb.bgib@bizkaia.eus korporazio-postontziaren bitartez.

2018an, askotariko izaerako erakundeak jarri dira harremanetan BGIBrekin, informazioa edo/eta aholkularitza eskatzeko: Administrazio hainbat sail (batez ere, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak), unibertsitate-komunitatea, enpresa pribatuak, komunikabideak, eta hainbat esku-hartze esparrutako profesionalak. Ohiko joerari eutsi zaio, eta eskaera gehienek emakumezko biktimen arretarako baliabide publikoei buruzko informazioa eskatu dute (baliabideak eskuratzeko baldintzak, ezau-garriak...), baita estatistikak, estatistiken azterketa eta interpretazioa ere.

Bestalde, hiru hilean behingo argitalpena jasotzea interesatzen zaien herritarren eta profesionalen harpidetza-eskaerak *BGIB Buletinaren* banaketa-zerrendetan sartu dira. Besteak beste, 2018an Osakidetzak egin zuen eskaera (Osasun Laguntzako Zuzendariordetza), argitalpen horretan erakundeko hainbat elkarte eta zerbitzutan genero-indarkeriaren alorrean erreferenteak diren pertsonen izena emateko.

d. Webgunea

2004an jarduerari ekin zionetik, BGIBk sarbide askeko webgune bat du Bizkaiko Foru Aldundiaren atarian (<http://www.bizkaia.eus>) eta egun Gaiak (Gizarte Zerbitzuak) ataletik sartzen da bertara.

Behatokiaren webgunearen egitura **gaztelaniaz eta euskaraz** dago garatuta:

http://www.bizkaia.eus/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.eus/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Horrez gain, **ingelesezko** atal bat ere badauka; bertan, labur azaltzen da webgunean aurki daitekeen edukirik garrantzitsuena.

Honako helburu hauei erantzuteko diseinatu zen webgune hori: erakundeak egiten duen lanaren berri ematea; emakumeen aurkako indarkeria ikertzeari, prebenitzeari eta artatzeari buruzko ezagupenak partekatzea; erakunde eta profesionalentzako lan-tresnak ezagutaraztea; eta azkenik, Behatokiaren eta erakunde solaskideen arteko ideia- eta dokumentazio-elkartrukea erraztea.

2013az geroztik, webgunean sartutako berrikuntzak posta elektroniko bidez jakinarazten zaizkie harpidedunei.

2018an, erakundearen komunikazio- eta hedapen-eginkizunetarako funtsezko baliabide gisa ezarri da webguneko informazioa etengabe eguneratzeko lana eta hura hobetzeko prozesua. Alderdi formalean gauzaturiko hainbat aldaketarekin elikatu da prozesu hori, guneak eskainitako edukietara sartzea eta bitarteko horrek eskatzen dituen berrikuntzak txertatzea errazten baitute horrelako aldaketek.

Webguneak 16 atal ditu (horietatik zortzik testuak jasotzen dituzte):

Definizioa: erakundearen aurkezpena, aurrekariak, helburuak, funtzioak eta dagozkion legeak.

Kideak: behatokia osatzen duten pertsonen zerrenda, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordezkatzan duen adierazita.

Bilerak: egutegia eta osoko bilkuretan berretsitako dokumentuak.

Dokumentuak: guztira, 112 dokumentu bilduta daude funts horretan (2018. urte amaieran), eta guztiak deskargatu eta online kontsulta daitezke. Honela sailkatuta daude: protokoloak; legedia, araudia eta akordioak; nazioarteko baliabideak; azterketak eta gidak; Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako makroinkestak ("Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2006" eta "Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak. 2009ko emaitzak eta 2005-2009ko alderaketa Bizkaiko Lurralde Historikoan"), erakunde honek arlo horretan egindako beste ikerketa batzuk ("Bizkaiko landa-gunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumezkoek arreta, babesa eta justizia eraginkortasunez jasotzeko orduan izandako behar eta oztopoi buruzko txostena"), "Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia (BGIB): jardunbide egokien esperientzia" artikulua eta Behatokiak berak sortutako agiri hauek:

- BGIBren Lan Planak (2004-2008) (2009-2012) (2013-2017)
- BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
- BGIBren jarduera-memoria (urteroko edizioak 2004. urteaz geroztik)
- Dokumentua: "Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan" (urteroko edizioak 2004. urteaz geroztik)
- Txostena: "Etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2018"
- Argitalpena: Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien gidaliburua (2006ko, 2010eko, 2014ko eta 2018ko edizioak)
- Dokumentua: "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zifrak Europar Batasunean, 2006"
- Azterlanak: "Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa" (2004-2008), (2009-2012) eta (2013-2017).
- Dokumentua: "Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2009" (argitalpenaren sintesia/testu osoa)
- Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak emandako Gomendioen Jarraipen eta Balantze Txostena. (2004-2008 epealdiaren amaiera). 2012
- "Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jarduera hobetzeko gomendioen eta proposamenen II. txostena Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2013"
- "Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jarduera hobetzeko gomendioen eta proposamenen III. txostena Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2016"

Baliabideen mapa: datu-base bat da, urteko datuekin eguneratua (2018), eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeekin esku hartzen duten baliabide eta entitateen gaineko informazioa jasotzen du. Bizkaiko Lurralde Historikoko baliabideak eta erakundeak dira, eremu instituzionalean eta hirugarren sektorean biltzen direnak. Baliabideen mapak, gainera, toki-erakundeek BGIBri hedatzeko ematen dizkioten berdintasun-planetara iristeko aukera eta indarkeriaren aurkako programetarako eta ekintza koordinatuko protokoloetarako sarbidea ematen du. Mapak *baliabideen bilatzailea* du, zerbitzuen zerrendak lortzeko (gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, polizia-arloko baliabideak, osasun-arloko baliabideak, elkarteak, indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak, eta berdintasunerako tresnak) honako hiru bilaketa-aukera hauen arabera:

- Bizkaiko udalerri guztietako baliabide guztiak
- Aukeratutako udalerriari dagozkion baliabide guztiak
- Bizkaiko udalerri guztien artean, aukeratutako arlo jakin batzuen baliabide guztiak

Planez, programez eta protokoloez gain, Maparen “**Berdintasun Tresnak**” atalak Bizkaiko toki-erakundeek sortutako dokumentuak biltzen ditu, honako kategoria hauetan guztietan: emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak, berdintasunerako udal-kontseilueta erregelamenduak, genero-ikuspegia duten hiri-diagnostikoak, berdintasun-ordenantzak eta abar.

Adierazleak: bi azpiatal dituen sarrera:

- **Lantaldea:** Adierazleen Lantaldeko kideen zerrenda hartzen du barnean, bakoitzaren kargua, bakoitzak ordezkatzen duen erakundearen izena, egindako bileren egutegia eta bilera horietan onartutako dokumentazioa zehaztuta.
- **Zifrak:** “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentuaren edizio guztiak daude bertan (urterokoa, 2004. urtetik).

Baliabideen atlas: mapa-bilduma, hiru ataletan banatua: **esparru soziala** (etxean indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta juridikoa eta psikologikoa emateko eta harrera egiteko Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden baliabideen estaldura, koordinazio-sistemen estaldura eta berdintasun-mekanismoen inguruan indarrean dauden politiken estaldura); **polizia-esparrua** (Ertzaintzaren ertzain-etxeak eta genero eta etxeko indarkeriarako dituen ekipoak, eta Ertzaintzaren eta Tokiko Polizien arteko koordinazio-batzordeak); eta **esparru judiziala** (Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien, Epaitegi Bateragarrien eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren estaldura).

Dokumentu-kudeatzailea: berdintasun-planak, udal-programak, tokiko protokoloak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan, Estatuan, Europan eta nazioartean aplikatzekoak diren legediak biltzen dira. 2018an, Kudeatzailea eguneratu da eta dokumentuak txertatu dira bertan, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunerako toki-planen atalean eta etxe-eremuan indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eman beharreko arreta hobetzeko koordinazioko toki-protokoloen atalean. Era berean, hainbat esparruetako legeen bilduma ere handiagotu da.

Estekak: Behatokiko erakundeen webguneetarako, Behatokiaren antzekoak diren bestelako erakunde eta behatokiaren webguneetarako eta beste hainbat erakunde, programa eta proiekturen webguneetarako esteken zerrenda.

BGIBren ebaluazioan parte hartzeko aukera: online galdeketa, Behatokiaren eta webgunearen funtzionamenduari buruzkoa.

Buletina: Behatokiaren webguneko ia orri guztien bidezko sarbidea duen aldizkako argitalpen elektronikoa; horrela, argitalpen elektroniko horren azken ediziorako sarbidea ez ezik, 2005etik argitaraturiko zenbaki guztietarako sarbidea ahalbidetzen du webguneak.

Hizkuntza: botoi horri esker, gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko bertsioetara alda gaitzke nahi dugunean.

Harremanetan jartzeko: Behatokiaren lokalizazioari eta harremanetarako datuei buruzko informazioa ematen du (kokapena, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta faxa).

Postontzia: Behatokiaren posta elektronikoaren helbidea, ovgb.bgib@bizkaia.eus

Erabilerraztasuna: webgunea errazago erabiltzeko informazioa ematen du. Behatokiak online dagoen informazioa eskuratzeko eta kudeatzeko aukera-berdintasuna bermatzen die aniztasun funtzionala duten pertsonen edo informazioa eskuratzekoan oztopo teknologikoak dituztenei. Horretarako, webguneko atal guztiak frogatu dira WAIk (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioen arabera.

Web-mapa.

e. Udal Harremanetarako Sarea (UHS)

Toki-erakundeen (112 udalerri eta 9 mankomunitate) eta Behatokiaren arteko komunikazioa funtsezko faktoreetako bat da Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriak duen errealitatea eta bilakaera ezagutzeko balio diguten datuak eta informazioa trukatzeko. Datuak biltzeko urtero gauzatzen diren bi prozesuak (bat, urtekoa, eta bestea, sei hilekoa) lagungarriak dira toki-ko erakunde bakoitzak agenteekin izandako erreferentziazko harremanak identifikatzeko, ezartzeko, mantentzeko eta eguneratzeko, Behatokiari dauden baliabideei eta arreta-datuei buruzko informazioa (aldian behingoa eta eguneratua) eman diezaioten, gerora aztertzeko.

Udalerrietako eta mankomunitateetako pertsona informatzaileen elkarlana ezinbestekoa da BGIBk egiten duen lanean

Datuak jakinarazi eta gero, datu horiek aztertu eta tratatu egiten dira, eta horri esker, tokiko zerbitzu publikoen bitartez arreta jaso duten emakumeei emandako estaldurari buruzko estatistikak sortzeaz gain, Behatokiak kontsultarako eskaintzen dituen produktuak eguneratzen dira: baliabide-mapa, Emakumeen aurkako Indarkeriari aurre egiteko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlasa, eta azkenik, Behatokiaren webgunean eskuragarri dauden urteroko bi argitalpen nagusiak: "Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak ..." eta "Aldundien, udalen eta mankomunitateen baliabideak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan" dagokion urteko datuekin eguneratuta.

Toki-erakundeei emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak erregistratzen lagunduko dieten prozedurak indartzeko ezarri zen datuak sei hilabeteen behin biltzeko prozesua. Partaidetza-indizeak eta ekarritako datuen kalitateak agerian uzten dute prozesu hori finkatu egin dela eta urteko bilketaren antzeko emaitzak lortzen dituela. Prozesu bakoitza amaitzean, berezko arreta-baliabideak dituzten toki-erakundeen eskura jartzen da "Udalerrietako Informazio Orria". Udalerriari eta mankomunitateari dagozkion datu espezifikoak eta funtzionatzen ari diren beste hainbat zerbitzu publikori buruzko datuak biltzen dituen txosten indibidualizatua da "Udalerrietako Informazio Orria".

Datuak biltzeko urteko eta sei hilean behingo prozesuetan parte hartzeaz gain, Behatokira horren funtzionamenduari eta nobedadei buruzko kontsultak eta informazioa bidaltzen dituzte BGIBren informatzaile-sare hori osatzen duten udalerri eta mankomunitateek, ohiko komunikazio-bideen bitartez: posta elektronikoa (ovgb.bgib@bizkaia.eus) eta telefonoa. Gainera, dokumentuak, lan-tresnak eta horrekin lotutako bestelako informazioa zabaltzeko erabiltzen dira webgunea eta *BGIB Buletina*.

2018an zehar bi neurrik indarrean jarraitu dute UHS sarea indartzeko; 2009-2012 epealdian hartu ziren lehen aldiz neurri horiek.

Lehen neurria sareko informatzaileei Adierazleen Lantaldeak urtean zehar egindako bileraren bategarria etortzeko gonbitea egitean datza, taldearen programazioaren eta egutegiaren arabera. 2018ko lan-dinamikak ez du erraztu gonbidatutako udal-erakundeek egindako bileretara joatea.

BGIBren jardunaren berri emateko informazio-bileretan Behatokiko ordezkariak egon daitezten eskatzeko aukeran datza bigarren neurria; erakunde interesdunen udalerrietan egingo lirateke bilera horiek. Testuinguru horretan, 2018an ez da egin horrelako bilerarik.

UHSri bi aukera horien berri ematen zaio ekitaldi bakoitzean urteko datu-bilketaren testuinguruan egiten diren jakinarazpenetan.

Informatzaileen sarea indartzeko hirugarren neurri bat indarrean egon da 2010 eta 2017 artean: parte hartzea BGIB Buletineko "Sarean" atalean. Atal hori emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan udalerrietako tokiko erakundeen lanaren erakusleho izan da, eta udalerrietako eta mankomunitateetako berdintasuneko eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen iritziak jaso ditu.

2018an norabide berri bat eman zitzaion atal horri; izan ere, ibilbidearen balantzea egin ondoren, epealdi horretan zehar erakunde laguntzaileen kopurua esanguratsua izan zela ikusi zen: guztira lurraldeko biztanleen % 84 biltzen duten 27 udalerrik eta mankomunitatek hartu zuten parte proposatutako jardueran. Horien artean aurkitzen dira 25.000 biztanletik gora dituzten hamar udalerrietatik zortzi eta gizarte-zerbitzuen bederatzi mankomunitateak.

Horren harira, garrantzitsua da azpimarratzea Buletineko atal horretan azaldutako BGIBko profesional berriemaileen ekarpenak eta iritziak aintzat hartu zirela, besteak beste, hausnarketa-prozesuan eta horrek era berean txosten hau lantzea ekarri zuela: "Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeen jarduera hobetzeko gomendioen eta proposamenen III. txostena Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2017".

f. Informazioa kudeatzeko sistema osoa

Informazioa kudeatzeko sistema osoaren bitartez, Behatokiak, batetik, indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako arretaren bolumenari buruzko datuak, eta bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako toki-erakundeek horretarako dituzten baliabideen ezaugarriak biltzen, erregistratzen eta ustiatzen ditu.

Toki-erakundeek Behatokiari emandako informazioa biltegiratzeko helburua duen datu-base batean datza tresna hori. Formulario digital pertsonalizatua dauka erakunde informatzaile bakoitzarentzat eta, beraz, bilketa berri bakoitzean, erakundeek beren formularioan jasotako datuak erkatzen dituzte eta jada erregistratuta dagoena baino ez dute zuzendu behar, ekitaldi berri bakoitzari dagozkion arreta-datuak betetzeaz gain. Galdera askok (% 63) aurreko urteko informazioa gordetzen dute eta horrek galde-sorta betetzea errazten du. Fitxan erregistratu diren datuen zerrendak eta estatistikak lortzea errazten du sistemak.

Formularioak “[Laguntza](#)” izeneko atala dauka; atal horren bitartez, formularioa betetzeko jarraibideetara sar daiteke erabiltzailea. Era berean, Behatokiko Idazkaritza Teknikoa erreferentziazko erakundearen eskura geratzen da, telefono edota posta elektronikoko bidez laguntza teknikoa emateko.

Sistemak formulario digitalaren bi bertsio ditu, datuak biltzeko prozesu bakoitzarentzat bana: urtean behingo prozesua eta sei hilean behingo prozesua. Euskaraz eta gaztelaniaz erabil daitezke bi bertsioak.

Eskuragarri dauden baliabideak eta arreta emandako kasuen bolumena eta ezaugarriak ezagutzeko, urtean behingo datu-bilketarako erabilitako oinarritzko galdeketa gaikako bost ataletan egituratuta dago:

- Tokiko erakundea
- Gizarte-baliabideak eta berdintasunerako baliabideak: Oinarritzko Gizarte Zerbitzua, Emakumearen edo Berdintasunaren Arloa, Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Plana, Berdintasun Eragilea, Berdintasun Kontseilua, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Ordenantza, Genero-ikuspegia duen hiri-diagnostikoa, Tokiko ekintza koordinatutako protokoloa, Berdinsarea eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plana.
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikorako baliabideak
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko berariazko baliabideak

Sei hilean behingo datu-bilketan erabilitako formularioak arreta emandako kasuen bolumenari erreparatzen dio, baliabide-modalitateen arabera:

- Tokiko erakundea
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikorako baliabideak
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko berariazko baliabideak

Kontzeptuekin lotutako zalantzak argitzeko eta datu-bilketan prozedura homogeneoak erabiltzearen garrantzia nabarmentzeko, formularioaren bi bertsioek kontsultarako atal bat dute, "[Definizio terminologikoak](#)" delakoa. Atal horren barnean, BGIBren ikuspegi analitikoa zentratzen duten emakumeen aurkako bi indarkeria moten definizioak agertzen dira (EAEko Erakunde arteko egungo Akordioaren bitartez ezarritako esparruaren ondoriozkoa da BGIBren ikuspegi analitikoa); definizio horiei dagokiez, ondoren aipaturiko dokumentuetatik atera dira, eta dokumentu horietarako sarbidea ere ematen du:

- Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko erakundeen arteko II. Akordioa
- Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak.¹

Ildo beretik, urteko formularioak beste kontsulta-atal bat du baliabideei buruzko galderen artean, eta, bertan, "[Zer da ekintza koordinatuko protokolo bat](#)" izenburupean, honako dokumentu honetatik ateratako definizio eraginkor bat ematen du: "Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakume biktimei laguntza hobe emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida". Formulariotik bertatik sartu daiteke dokumentu horretara.

2016. eta 2017. urteen artean tresna hori berritzeko prozesua garatu zen, horrela softwarea eta diseinua eguneratu egin ziren eta galdeketaren antolaketa moldatu zen hura betetzea errazteko.

2018an bilketa prozesua eta sistematik informazioaren kudeaketa errazteko hobekuntzak egin dira, bi datu-bilketak (urtekoa eta seihilekoa) egiteko dagozkion jarduerak burutzeaz gain: testuen egokitzapena, erakunde informatzaile bakoitzarentzako galdeketak sortzea, eta informazioa erregistratzea eta biltzea.

1. Erakundeen arteko akordioaren jarraipen-batzordeak eginiko dokumentua.


g. Baliabideen mapa

Baliabideen mapak Bizkaian emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako erabilgarri dauden arreta-baliabideei buruzko informazioa ematen du.

BGIBren webgunean dago baliabideen mapa, eta, aldiro, eguneratu egiten da, baliabide berriei eta haiekin harremanetan jartzeko datuei buruzko informazioa datu-basean sartuz.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lanean modu batean edo bestean esku hartzen duten zerbitzuen funtzionamenduari eta ezau-garriei buruzko datuak biltzeko diseinatutako eta azpiatalez egituratutako zortzi atalek osatzen dute mapa:

- Erakundearen datuak
- Indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak
 - Harrera
 - Aholkularitza juridikoa
 - Laguntza psikologikoa
 - Familian esku hartzeko programa, familia-esparruko emakumeen aurkako indarkerian espezializatua
 - Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua
 - Ofiziozko txanda espezifikoa
 - Telefono bidezko arreta espezializatua 24 orduetan: 900 840 111
- Gizarte-baliabideak
 - Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta indarkerian espezializatutako zerbitzuak
 - Berdintasun-arloak
 - Emakumeen Topalekua
 - Gizarte-larrialdietako udal-zerbitzuak
- Polizia-baliabideak
 - Ertzaintza
 - Udaltzaingoa
- Baliabide judizialak
 - Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegia
 - Guardiako epaitegia
 - Biktimari laguntzeko zerbitzua
 - Familia-elkargunea (FE) epaileak aginduta



- Osasun-baliabideak
 - Osasun-zentroak / anbulatorioak
 - Buru-osasuneko zentroak
 - Larrialdiak
- Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren esparruan lan egiten duten elkarteak
- Berdintasunerako tresnak
 - Berdintasun-planak
 - Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko planak eta programak
 - Tokiko koordinazio-protokoloak
 - Berdintasun-kontseiluak
 - Ahalduntze-eskolak
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak
 - Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten hiri-diagnostikoak

Mapak bi bilaketa-aukera ematen ditu:

Udaletako fitxak: mapa grafiko baten gainean edo zerrenda baten gainean udalerri bat aukeratzean sistemak fitxa bat itzultzen du, udalerri horretan eskuragarri dauden baliabideak jasotzen dituen.

Baliabideen zerrenda: zerrendak hiru aukeraren arabera eskuratzeko aukera eskaintzen du:

- Udalerrri guztietako baliabide guztiak
- Udalerrri baten baliabide guztiak
- Aukeratutako arloetako baliabide guztiak, udalerri guztietakoak

Horrez gain, tresna horri esker, datu-zerrenden forman ateratako erantzunak Excel formatura pasa daitezke, mapan bertan txertatutako aplikazio baten bitartez.

Honako kolektibo hauetarako erabilgarria izateko helburua du mapak:

- Arreta-lanak egiten dituzten profesionalak eta erakundeak, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko tokiko baliabideei eta indarreko legediari buruzko informazioa aurki dezakete-lako (toki-eremuan koordinazioa egituratzeko planak, programak eta protokoloak, berdintasunerako ordenantzak, hiri-diagnostikoak...).
- Eraginpeko pertsonak eta zerbitzuen erabiltzaileak, erabili ditzaketen baliabideei buruzko informazioaren eta harremanetarako datuen xehetasunak ematen baititu.
- Politika publikoen arduradunak, tresna bikaina baita, Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dagoen laguntza-sareari eta planifikazioko eta koordinazioko tresnei buruzko informazio eguneratua eskaintzen duen aldetik, indarkeria hori desagerraraziko duten estrategia berriak pres-tatzen laguntzeko.
- Herritarrak/komunitatea, horrelako egoeretan arreta ematen adituak diren baliabideak nahiz erakundeak identifikatzen dituztelako.

2018an, Baliabideen Maparen edukia —Bizkaiko udalerri guztietakoa— eguneratu da, baliabideei buruzko informazio literala eta horrekin lotutako dokumentazioa (“Berdintasun Tresnak” atalean jasotakoa): berdintasun-planak eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren kontrakoak, tokiko koordinazio-protokoloak, berdintasun-ordenantzak, genero-ikuspegia duten hiri-diagnostikoak eta abar.


Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2018ko genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa

h. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa

Baliabideen Atlas 16 mapaz osatutako bilduma da; mapa horiek honako hauen estaldura irudikatzen dute: batetik, esparru sozialean, polizialean eta judizialean Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriako egoeretan arreta emateko zerbitzuak; eta bestetik, ordezkaturiko toki bakoitzeko erakundeek aplikaturiko berdintasun-politikak (gizarte-zerbitzuen mankomunitatearen eta/edo udalerriaren arabera eta foru-eskualdearen edo -azpieskualdearen arabera).

Atlasak erraztu egiten du tresnaren mapen eta atalen arteko operatibitatea.



Gainera, mapetan bildutako informazio guztia testu-formatuan eskuratzeko aukera ere eskaintzen du Atlasak, datu-taulen eta zerrenden bitartez; horrela, kontsultatzen dutenek informazio hori gorde edo inprima dezakete, dokumentua PDF formatuan zabaldu ondoren. Euskaraz eta gaztelaniaz eskuragarri daude atlasaren egitura eta edukiak.

2018an eguneratu egin da Atlasaren 16 mapetan eta horietatik eratorritako dokumentuetan jasotako informazioa. 2018ko maiatzean honela sailkatu ziren mapak:

● GIZARTE-ARLOA

Planak

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, edizioen arabera. 2018.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, teknikari espezializatuen arabera, figura hori sortu zen urtea kontuan hartuta. 2018.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, onetsi ziren urtearen arabera. 2018.

Koordinazioa

- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea, BERDINSAREA. 2018.
- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko eta eskualdeko protokoloak. 2018.

Harrera

- Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Harrera Baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2018.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Harrera Baliabideak, sortu ziren urtearen arabera. 2018.

Laguntza psikologikoa

- Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak. 2018.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2018.

Aholkularitza juridikoa

- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan (udalerrri bakoitzeko estaldura). 2018.
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan (mankomunitate bakoitzeko estaldura). 2018.
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2018.

● POLIZIA-ESPARRUA

- Ertzaintzak Bizkaiko Lurralde Historikoan dauzkan ertzain-etxeak eta genero- eta familia-indarkeriaren arloko taldeak. 2018.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan Ertzaintza eta udaltzaingoa koordinatzeko batzordeak. 2018.

● ESPARRU JUDIZIALA

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoan, barruti judizialaren eta sortutako urtearen arabera. 2018.
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2018.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa, 2018

i. Zifren aurrerapena Bizkaiko Lurralde Historikoan

Bigarren urtez Behatokiak urteko Zifrak txostenaren **aurrerapena argitaratu** du 2018ko ekainean.

Xedea da Bizkaian zerbitzu publikoek emakumeen aurkako indarkeria-arloan bildutako eta aztertutako datuetatik ondorioztatzen den informazioa zabaltzeko epeak hobetzea. Informazio hori urteko azken hiruhilekoan argitaratu ohi den "... zifrak..." bildumako urteroko zenbakietan jasotzen da. Bigarren hiruhilekoaren inguruan emaitzei buruzko aurrerapen bat ematea da txosten horren helburua.

Lau esku-hartze alorretako —soziala, poliziala, judiziala eta osasuna— zerbitzuek urtean zehar erantzundako eskaeraren adierazle orokorrak jasotzen ditu argitalpenak. Horrez gain, aztertutako epean zerbitzuetarako irisgarritasunaren jarraipena egiteko aukera ematen duten bilakaera-datuak biltzen ditu. Aurreko edizioarekin alderatuta (bildumako lehena) atal berri bat gehitu da 2018an egindako txostenean, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko foru-programari buruzko atala alegia.

Egitura honen arabera antolatzen da txostena:

Sarrera

1. Osoko gizarte-arreta

- 1.1. Harrera
- 1.2. Aholkularitza juridikoa
- 1.3. Laguntza psikologikoa
- 1.4. Familian esku hartzeko programa, familia-esparruko emakumeen aurkako indarkerian espezializatua
- 1.5. Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua (**berria**)
- 1.6. Telefono bidezko arreta

1.7. Etxebizitza-arloko laguntzak

1.8. Diru-laguntzak (1/2004 LOko 27. artikulua)

1.9. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak laneratzea

2. Polizia-esparrua

3. Esparru judiziala

3.1. Prozesu judizialak

3.2. Familia-elkargunea epaileak aginduta: Bilbo, Portugalete eta Barakaldo.

4. Osasun-esparrua

4.1. Larrialdietako Zerbitzuak

4.2. Lehen mailako arreta

Observatorio de
Violencia de Género Bizkaia

INFORME

CIFRAS DE ATENCIÓN A SITUACIONES DE
VIOLENCIA DE GÉNERO EN EL TERRITORIO
HISTÓRICO DE BIZKAIA

2017

AVANCE

Junio 2018

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifren txostenaren aurrerapena, 2017

j. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak

“Genero-indarkeriaren egoeretan emandako laguntzei buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” txostenak arretarako zerbitzu publikoek hainbat esku-hartze esparrutan emandako informazioa bildu eta aztertzen du.

2004 eta 2014² bitartean eginiko urteko edizioetan arlo sozialean, polizialean eta judizialean hartutako neurriei buruzko informazioa ematen zen; 2015eko edizioak, arlo horiez gain, osasun- eta hezkuntza-arloak ere gehitu zituen, Behatokian ere txertatu baitziren.

2018an egindako txostenak **datu eta informazio berriak** bil-tzen ditu. Aurten lehen aldiz ezagutu eta aurkeztu dira Bizkaiko Foru Aldundiaren genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko programaren datuak, gizarte-arloko zerbitzuei buruzko kapituluan.

Polizia-esparruari buruzko kapituluan biktimak babesteko neurriei buruzko informazioa osatuta dago poliziak arriskuari buruz egindako balorazioaren adierazleekin. Esparru judizialari buruzko kapituluan genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak babesteko neurri judizialei buruzko datuak jaso dira.

2018an garatutako prozesuan, informazioa honako erakunde hauek eman zuten zuzenean (zenbait kasutan alor batean baino gehiagotan informatu zuten):

- Bizkaiko 112 udalerri eta 9 mankomunitateek;
- Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak;
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak;
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak;
- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak;
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak;
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak;
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoak.

Bizkaiko Genero
Indarkeriaren Behatokia

TXOSTENA

GENERO INDARKERIAKO EGOERETAN
EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK BIZKAIKO
LURRALDE HISTORIKOAN

GIZARTE-BABESAREN, POLIZIAREN, JUSTIZIAREN, OSASUNAREN ETA
HEZKUNTZAREN ARLOAK.

2017

2. Txostena egin zen urtea; txosten bakoitzeko datuak argitalpen-urtearen aurreko urtean garatutako jarduerari dagozkio.

Horrez gainera, txostenak honako dokumentu-iturri hauetatik ere biltzen ditu datuak:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (prozesu judizialei buruzko datuak)
- Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (auztegi-medikuen arretari buruzko datuak)
- Espainiako Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza (genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzerritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenei eta lan-baimenei buruzko datuak)

Hori horrela, "Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak... 2017" txostenak 135 iturritatik datorren informazioa biltzen du, esku hartzeko 20 alor edo moten inguruan; jarraian xehatzen dira alor horiek.

GIZARTE-BABESAREN ARLOA

Atal honetan aurkezten diren azterketak eta datu-taulek honako baliabide mota hauei buruzko informazioa biltzen dute:

- Harrera: larrialdi-zerbitzua, egonaldi ertain eta luzerako arreta-zentroak eta -etxebizitzak, eta gizarteratzeko eta laneratzeko etxebizitzak.
- Aholkularitza juridikoa.
- Laguntza psikologikoa.
- Familian esku hartzeko programa, familia-esparruko emakumeen aurkako indarkerian espezializatua.
- Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua **(berria)**.
- Telefono bidezko arreta.
- Etxebizitza-arloko laguntzak.
- Diru-laguntzak (Berdintasunerako 1/2004 LOko 27. artikulua).
- Enplegua.
- DSBE.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenak eta lan-baimenak.

Honako erakunde hauek izan dira atal honetan jasotako gaiei buruzko informazio-iturri zuzenak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua; Harrera-zerbitzuak, Aholkularitza Juridikoa eta/edo Laguntza Psikologikoa dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrriak eta mankomunitateak; Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza eta Etxebizitza Zuzendaritza); eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa. Gainera, dokumentu-iturritzat hartzen da Espainiako Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza.

POLIZIA-ESPARRUA

Bigarren atal honetan, zenbait azterketa eta datu-taula jasotzen dira, Ertzaintzak, Bizkaiko Lurralde Historikoan, erregistratu dituen emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko biktimen eta biktimizazioen gainean.

Informazio-iturri zuzena Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila da, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzako Azterlan eta Analisisien Dibisioaren eta Ertzaintzaren bitartez.

ESPARRU JUDIZIALA

Hirugarren atalean bildutako azterketaren eta datuen iturriak honako hauek dira: emakumeen aurkako indarkeria-kasuetako prozesu judizialak; EAEko Emakumearen aurkako Indarkeria Koordinatzeko Zentroak ezagututako genero-indarkeria arloko ebazpen judizialak; eta epaileak agindutako Familien Elkargune Zerbitzuaren arreta, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarena, abokatu-laguntzako ofiziozko txanda espezifikoarena eta auzitegi-medikuena.

Esparru honetan informazioa biltzeko iturriak hauek dira: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (dokumentazio-iturria); Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (Emakumearen aurkako Indarkeria Koordinatzeko Zentroa eta Familien Elkargune Zerbitzuaren arduraduna); Bizkaiko Abokatuen Elkargoa; eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua (dokumentazio-iturria).

OSASUN-ESPARRUA

Osasun-esparruko informazioa ematen du laugarren atalak; zehazki, datuak biltzen dituen agiri bat da (PDF eta XLSX formatuetan), datu horien azalpen eta analisisa ere jasotzen dituen, eta genero-indarkeriaren biktima izateagatik larrialdietako eta lehen mailako zerbitzuetan artatu diren emakumeei buruzkoa (> = 14 urte) dena, betiere zenbait aldagai kontuan hartuta.

Esparru honetako informazio-iturri zuzena Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila da.

HEZKUNTZA-ESPARRUA

Hezkuntza-esparruko atalak datuen dokumentu bat (PDF eta XLSX formatuetan) eta datu horiek azaldu eta aztertzeko kapitulu bat biltzen ditu, eta jazarpen edo abusu sexualagatik edo sexistagatik salatutako kasuei buruzkoa da, betiere lurralde-esparrua kontuan hartuta.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da (Hezkuntzako Ikuskaritza) informazio-iturri zuzena esparru horretan.

Gaiaren araberako bost atalen ondoren, txostenak kapitulu hauek jasotzen ditu:

- Sintesia
- Glosarioa
- Iturriak

Azkenik, eranskin hauek gehitu dira: datu-taulak, Bizkaian emakumeen aurka eragindako indarkeriaren biktimizazioen banaketa-mapa eta "Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak" txostena, erakundeen arteko akordioaren jarraipen-batzordeak adostua.

Txostena Behatokiaren webgunean kontsultatu eta/edo deskarga daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz, eta haren bi bertsio eskura daitezke:

- Dokumentu osoa. Honako hauek osatzen dute:
 - Azterketa-dokumentua(k)
 - Sintesia
 - Terminoen glosarioa
 - Datu-iturriak
 - Eranskina: datu-taulak
 - Eranskina: Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeria dela eta, emakumeen biktimizazioen mapak
 - Dokumentu-eranskina: emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko akordioaren jarraipen-batzordeak adostua.
- Azterketa-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten dokumentuak (PDF eta XLS), gaika antolatuta:
 - Deskribapen-analisiaren 5 dokumentu (esparru soziala, poliziala, judiziala eta osasun- eta hezkuntza-esparruak)
 - Datu-taulak (XLSX) jasotzen dituzten 14 liburu
 - Datu-taulak jasotzen dituzten 14 dokumentu (PDF)
 - Pdf mapak (esparru poliziala)

Informazioaren irisgarritasuna hobetzen jarraitzearen ildotik, 2018an "...Zifren txostena 2017" txostenaren laburpena jarri da eskuragarri berrikuntza moduan eta zuzenean sar daiteke **dokumentu independentearen** formatuan baitago.

Kapitulu modura jarrita dago dokumentu osoaren zein gaikako dokumentuen bertsioetan.



Aurrekoaren osagarri, "... zifrak ..." txostenaren edizioak memoria honen aurreko atalean deskribatzen den aurrerapen-argitalpena jasotzen du 2017. urteaz geroztik.


Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

"Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta hezkuntzaren esparruak (2017)"

k. Aldundiaren, udalen eta mankomunitateen baliabideen katalogoa emakumeen aurkako indarkeria-arloan Bizkaiko Lurralde Historikoan

Emakumeen aurkako indarkeria-arloan (etxekeo tratu txarrak eta/edo sexu-indarkeria) Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak katalogatzen dituen **urteroko dokumentua argitaratu zuen** Behatokiak 2018an. Gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu zen, eta Behatokiaren webgunean dago.

Dokumentu hori egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta berezko baliabideak dituzten toki-erakundeek zerbitzuen lurralde-sareari buruzko informazio eguneratua ematen diote BGIBri.



2018an dokumentu horren edukia atal hauetan banatu zen:

- I. Harrera
- II. Aholkularitza juridikoa
- III. Laguntza psikologikoa
- IV. Familian esku hartzeko programa, familia-esparruko emakumeen aurkako indarkerian espezializatua
- V. Familia-elkarguneak gizarte-zerbitzuen alorrean, epaileak aginduta
- VI. Laguntza sozialeko agenteen sarea
- VII. Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua

Atal bakoitzaren aurretik, baliabideen lurralde-estaldura adierazten du mapa tematiko batek. Hainbat aukera grafikoren bitartez adierazten da informazioa, baliabidearen titulartasuna duen erakundearen arabera (Bizkaiko Foru Aldundia edo Bizkaiko udal-erakundeak).

Aholkularitza juridikoari eta **Laguntza psikologikoari** buruzko kapituluek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute:

- Baliabidearen titulartasuna duen erakundea (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatuko den esku hartzeko programa
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa mota
- Arreta-orduak hilean

- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko telefonoa
- Arreta-egunak eta ordutegia
- Aurreko urteko (2017) erabiltzaile-kopurua, sexuaren arabera bananduta, eta emakumeen portzentajea erabiltzaileen guztizkoan
- Aurreko urtean, 2017an, tratatu txarren eta/edo sexu-indarkeriaren ondorioz, arreta jaso zuten emakumeen kopurua, kasu berriak eta aurrekoak bereizita

Harrera-baliabideei buruz emandako informazioa honako gai hauei buruzkoa da:

- Zenbat baliabide dauden
 - Etxebizitzaren kopurua
 - Plazen kopurua
- Baliabide mota
 - Aldi baterako harrera
 - Larrialdiko harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa mota
- Babesteko/laguntzeko programa
- Etxebizitzari atxikitako langileak
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zenbat pertsonari egin zitzaaien harrera aurreko urtean, 2017an, honako kolektibo hauek bereizita:
 - Emakumeak
 - Emakume horien seme-alabak, sexuaren eta adinaren arabera (</> 18 urte)
 - Emakume horien mendeko pertsona helduak

Familian Esku Hartzeko Zerbitzu Espezializatuari buruzko informazio hau ematen du dokumentuak:

- Baliabidearen titulartasuna duen erakundea (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Baliabidearen helburu orokorrak
- Bete behar den esku-hartze programaren deskribapena
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa mota
- Hilean artatu diren kasuen kopurua
- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzura sartzeko modua
- Aurreko urtean, 2017an, izandako erabiltzaile-kopurua, emakume-kopurua eta adingabe-kopurua (sexuaren arabera bereizita), eta informazio bera kasu berriei buruz; bai eta kasu berrien familia-osaerari buruzko datuak ere: emakume-kopurua, ardurapean seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak.

Epaileak agindutako **Familia Elkarguneko (FE)** zerbitzuei buruzko fitxek honako datu hauek jasotzen dituzte:

- Baliabidearen titulartasuna duen erakundea (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Ematen diren zerbitzuak
- Zer kolektiborentzat den
- Zuzeneko arretarako eguna eta ordutegia
- Kudeaketa mota
- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Programarako sarbidea
- Beste datu interesgarri batzuk
- Araudi erregulatzailea
- Eskumena
- Aurreko urtean, 2017an, izandako kasu-kopurua: familia-kopurua eta adingabe-kopurua sexuaren arabera
- Aurreko urtean, 2017an, babes-agindua zuten kasuen kopurua: emakume-kopurua eta adingabe-kopurua sexuaren arabera (eta familia-elkarguneko adingabe guztiekiko ehunekoa)

Gizarte-laguntzarako Agenteen Sareari dagokion kapituluak honako hauei buruzko informazioa biltzen du:

- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Bete behar den esku-hartze programaren deskribapena
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa mota
- Inplikaturako elkarten kopurua
- Sarean dauden gizarte-agenteen kopurua
- Programarako sarbidea
- Beste datu interesgarri batzuk (egitasmoaren bilakaera)

Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartze-ko foru-programari buruzko informazioak alderdi hauek jasotzen ditu:

- Baliabidearen titulartasuna duen erakundea (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Helburuak eta edukia
- Programako eduki nagusiak
- Zer kolektiborentzat den
- Bete behar den esku-hartze programaren deskribapena

- Kudeaketa mota
- Programaren estaldura
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzura sartzeko modua
- Aurreko urteko (2017) kasu-kopurua: pertsona-kopurua (adingabeak sexuaren arabera, amak, aitak, senideak)
- Kasuen ezaugarriak (2017): babes-agindua zuten adingabeak eta amak (%).

Azken bi puntuak lehen aldiz sartu dira dokumentuan, programaren lehen datu eskuragarriak 2017. urteari dagozkionak baitira.

Dokumentuak honako txosten hau du erantsita: "Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak", etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakunde arteko akordioaren jarraipen-batzordeak onetsia.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

"Familia-esparruko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntzeko foru-baliabideak, eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak, 2018"

I. Udalerrietako Informazio Orria

“Udalerrietako Informazio Orria” berezko arreta baliabideak dituzten udal-erakundeei zuzendutako txosten modalitate bat da. Sei hileko datu bilketaren testuinguruan, Behatokiak egin duen txostena da eta toki-esparruan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen bilketa sistematizatzeko mekanismoak sustatzea du helburu. Datu horietan, bi mota bereizten dira, Erakunde arteko Akordioak jasotzen dituenak: etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria.


Partaidetza-mailak, erantzuteko ezarritako epea gehienek betetzeak eta emandako informazioaren kalitateak adierazten dute txosten hauen gauzatzearekin amaitzen den datuen sei hilean behingo bilketa-prozesua finkatuta dagoela, eta hedapen handia duela.

Prozesuan parte hartzen duen udal edo mankomunitate bakoitzerako indibidualizatuta dauden dokumentuak dira, toki-erakunde bakoitzeko zerbitzuen birtartez arreta jaso duten kasuen kopuruari buruzko informazio xehatua biltzen dutenak (emakumeak eta mendeko pertsonak), bai eta udalerriz gairik baliabideetan erregistratutako informazioa ere, udalerriko kasuei buruzkoa.

Txosten horiek 2010ean egin ziren aurrenekoak, eta ordudunik haien edukia iturri eta esku-hartze arlo gehiagorekin zabandu da, eta, horri esker, udal-erakundeei emakumeen aurkako indarkeriako egokien ondorioz zerbitzu publikoetan laguntza jaso duten biztanleei buruzko gero eta datu gehiago eta anitzagoak eskuratu ahal izan dute.

Nabarmentzekoa da txosten hauetan jasotzen diren datuak eman dituzten udalez gairik baliabideetan erakunde guztien ekarpena. Ekarpene horri esker, erakunde hartzaileek bermatuta daukate lurralde- eta udal-mailako informazio eguneratua eta oso xehatua jasotzea gizarte-, polizia- eta justizia-arloko esku-hartze esparruei buruz.

2018. urteko txostenean jasotako informazioa honako erakunde hauen jarduerari buruzkoa da, eta erakunde hauek eman dute zuzenean: udalerrietako toki-erakundeak; Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saila (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua); Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa; Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila; Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saila; eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoa. Horrez gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikatik hartutako informazioarekin osatu da informazio-orria.



Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko programari buruzko datuak gehitu dira aurten berrikuntza modura.

Udalerrietako Informazio Orriak ondoren deskribatzen den egitura izan du 2018an, taulen, koadroen eta grafikoen zerrenda baten bitartez:

- Testuinguruari buruzko datuak
- Udalerriari edo mankomunitateari buruzko datuak

- Gizarte-arloa

Udal-baliabideak

- Harrera
- Aholkularitza juridikoa
- Laguntza psikologikoa
- Familia-elkargunea (*titulartasun autonomikoa eta udal-kudeaketa*)

Foru-baliabideak

- Larrialdiko harrera
- Epe ertaineko edo luzeko egonaldiako harrera
- Gizartean eta lan-munduan txertatzeko etxebizitzak
- Aholkularitza juridikoa
- Laguntza psikologikoa
- Familian esku hartzeko programa, familia-esparruko emakumeen aurkako indarkerian espezializatua
- Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua **(berria)**

Autonomia-erkidegoko baliabideak

- Telefono bidezko arreta
 - Diru-laguntzak (1/2004 LOko 27. artikulua)
 - Etxebizitza-arloko laguntzak
 - Gizartean eta lan-munduan txertatzea: enplegu-eskatzaileak; diru-sarrerak bermatzeko errenta
 - Polizia-esparrua
- Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak:
- Bikotekidea/bikotekide ohia
 - Familiaren barruan
 - Sexu-indarkeria
 - Esparru judiziala
 - Familia-elkargunea (*titulartasun eta kudeaketa autonomikoak*)
- Beste datu batzuk barruti judizialen arabera:
- Salaketak eta uko egiteak
 - Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak eta Ofiziozko Txandak egindako esku-hartzeak

Txostenek 2018ko lehen sei hilekoko datuak jasotzen dituzte, bai eta denbora-irismen desberdineko bilakaera-ikuspegi bat.

2018an, **sei hilez behingo 28 txosten** egin dira guztira eta arreta-baliabideak dituzten eta datuak biltzeko prozesuan esku hartu duten 22 udalei eta sei mankomunitateei bidali zaizkie.

Azaroaren 25ean, hau da, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean, hausnarketak eta jarduerak egiten lagunduko lukeen informazioa toki-erakundeen eskura uzteko, Behatokiak honako konpromiso hau hartu du, aurreko urteetan egin duen moduan: egun hori baino lehen txosten horiek erakundeetara bidaltzea, betiere udalerri eta mankomunitateek beren datuak finkaturiko epearen barruan jakinarazten badituzte. 2018an, aurreko ekitaldietan bezala, bete egin da konpromiso hori, are informazioa eskatu baino beranduago helarazi duten erakundeen kasuan ere.

m. Lineako dokumentu-kudeatzailea

Lineako dokumentu-kudeatzailea emakumeen aurkako indarkeriari buruzko dokumentuak bil-tzen dituen datu-base bibliografiko bat da. Doku-mentu horiek gaika banatuta daude lau multzo-tan:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako eta mankomunitateetako berdintasun-planak
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletako eta mankomunitateetako emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- Etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko tokiko koordinazio-protokoloak Bizkaiko Lurralde Historikoan
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia nazioartean, Europan, Estatuan, EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan, eta Bizkaian (foru eta toki mailan):
 - Legeak
 - Dekretuak
 - Aginduak
 - Erabakiak
 - Zuzentarauak
 - Txostenak
 - Araudiak
 - Tratatuak



Dokumentuen deskribapena egitean, ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen bat egin da, dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalen eta kanpo-ezaugarrien analisia egiteko. Horretarako, dokumentuen deskribapenean sarbide modura zehaztu diren arloei erreparatu zaie arretaz, sarbide horietatik ateratzen baita dokumentuen funtsean dauden erregistroak katalogatze eta antolatzeko beharrezkoa den informazio objektiboa.

Informazio-unitateak honako arlo hauetan mailakatzen dira:

- Egilea
- Izenburua
- Dokumentu mota
- Arduren beste adierazpen batzuk
- Edizioa
- Hizkuntza
- Non argitaratu den
- Argitaletxea
- Argitaratutako urtea
- Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)
- Seriea
- Oharrak
- Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:
 - ISBN
 - ISSN (aldizkako argitalpenak badira)
 - NIPO
 - DL
 - Sinboloa
- Laburpena
- Deskribatzaileak

Sistemari esker, bi aukeraren bitartez egin daitezke bilaketak:

Bilatzaile arrunta: testu-kutxa batean termino bat edo gehiago txertatuz gero, eskatutako dokumentuaren edo dokumentuen erreferentzia itzultzen du bilatzaileak.

Bilatzaile aurreratua: bilaketa xehatuagoa eta zehatzagoa izatea nahi badugu, termino bat baino gehiago sartu beharko dugu bilatzaile aurreratuko testu-kutxetan. Bilaketa-modalitate horren bitartez, tresna informatiko horrek dokumentuaren fitxa katalogafikoa ematen digu, eta horrez gain, dokumentuaren bertsio digitala bistara eta/edo deskarga dezakegu.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Dokumentu-kudeatzailea

n. BGIBren informazio-buletina

2018ko programazioari Buletinaren 48., 49., 50. eta 51. zenbakiak dagozkio. Gainera 47. zenbakia (urtarrila) argitaratu da.

Komunikazio-tresna horren bitartez, emakumeen aurkako indarkeria eraztearen aldeko mekanismo, egitura eta prozeduren inguruko sentsibilizazioa, informazioa eta sustapena bultzatu nahi du Behatokiak, argitalpenaren **helburuekin** bat etorrita:

- Behatokiak lurralde-esparruko informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen rola sendotzea.
- Harremana sendotzea udalerrietako toki-erakundeekin eta erreferentziazko beste batzuekin.
- Hainbat arlotako profesionalekin eta erakundeekin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak trukatzeko prozesuaren alde egitea: gauzatutako jarduerak, ikasitako alderdiak, ikuspegi berriak.
- Behatokiaren jardunen eta horien emaitzen hedapenaren inguruan etengabeko komunikaziorako gune bat sortzea eta mantentzea.
- Beste erakunde eta organo batzuen jardueren, proiektuen eta programen berri ematea, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten diren ekintzak ezagutzera emateko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera ikusaraztea eta haren gainean sentsibilizatzea.

Buletinaren edukia Behatokiaren webgunean ikus daiteke, han baitaude jasota 2005az geroztik argitaratu diren zenbaki guztiak; horrez gainera, posta elektronikoko bidez jaso daiteke argitaratutako zenbakien gaineko jakinarazpena. Banaketa-zerrendak baliatzen ditu Buletinak jakinarazpenak egiteko, eta kolektibo hauek osatzen dituzte zerrendak:

- Bizkaiko toki-erakundeetako Gizarte Ongizateko eta Berdintasuneko arloetako politikariak eta teknikariak.
- Behatokiko Osoko Bilkurako kideak.
- Behatokiko Adierazleen Lantaldeko kideak.
- Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintza Batzordeko kideak (VII. agintalditik aurrerakoak).
- Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume-elkarteak.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lan egiten duten elkarteak.
- Behatokiaren solaskide diren langileak eta erakundeak.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketarekin lotura duten pertsonak.
- Herritarrak eta erakundeak oro har.



Halaber, buletina gehiago zabaltzea lortzeko laguntza-neurri gisa, zenbaki berri bakoitza argitaratuko dela jakinarazten zaie, posta elektronikoz bidez, pertsona eta kolektibo harpidedunei. Jakinarazpen horretan, buletinerako eta artikulu guztietarako estekak daude; horrela, zuzenean mezu elektronikotik argitalpeneko atal bakoitzean sartzea errazten zaio harpidedunari.

Buletina bost atal hauetan banatzen da:

- “Gaiak”
- “Behatokia”
- “Tresnak”
- “Beste behatoki batzuekin sarean” (**berria**)
- “Kontuan hartu”

Era berean, aldizkariaren azalean “Ikuspegiak” izeneko atala du. Bizkaian eta EAEn berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaiak lantzen dituzten argitalpen digital hauetarako estekak jasotzen ditu atal horrek: *Berdintasuna, Emakunde, Beldur Barik, Nahita, Emeki, Pikara online Magazine*.

Argitalpenaren edukiari dagokionez, nabarmentzekoa da Adierazleen Lantaldeko kideek zenbaki bakoitzeko edukia zehazteko lanean parte hartzen dutela, eta hauek epe jakin baten barruan helaraz ditzakete dituzten proposamenak. Era berean, argitalpenean jorratu daitezkeen gaiak proposa ditzakete irakurleek, orri-oinean gaitutako sarbide baten bitartez.

2018an **14 urte bete ditu argitalpenak** eta urte horietan guztietan zehar aldaketak egin dira argitalpenaren hainbat alderdi hobetzeko: edukiak zabaltzea, banaketa hobetu da eta argitalpenaren izaera parte hartzailea bultzatu da, interesekoak diren hainbat alorretako adituei zuzenean parte hartzeko aukera eskainiz. Gainera, birmoldatze grafiko handia egin ondoren, diseinu berria du 2016. urtetik.

Buletinak ataleko bat berritu zuen 2018an: “Sarean” atala, hain zuzen ere, ordura arte BGIBko informatzaile-sarearen partaidetzara bideratuta zegoena **“Beste behatoki batzuekin sarean”** izatera pasatu zen eta edukia aldatu zuen, BGIBrekin bat egiten duten behatokiaren lana ezagutu eta zabaltzera bideratuz. Aldaketa horrek atalaren izaerari eutsi dio, hainbat erakundek emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuta garatzen dituzten jardueren, haien iritzien eta ezagutzen berri emateko gune izaten jarraituz.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu-bilketaren garrantziaz eta beharraz sentsibilizatzen eta jabetzen laguntzea da “Beste behatoki batzuekin sarean” atalaren helburu nagusia. Xede horrekin aurkeztzen da alor horretan diharduten behatokiaren lana, baita lan horren emaitza nagusiak ere eta, horrez gain, gai horretan hobetu beharreko alderdiei buruzko beren iritziak ezagutarazten dituzte.

Hona hemen, zehaztuta, 2018. urtean zehar landu diren gaiak:

Martxoan argitaratutako buletinaren 48. zenbakiak "Gaiak" atalarekin eman zion hasiera, **Emakumeen Topalekuak Bizkaian. Ermua: Emakumeen Topalekuaren 15. urteurrena** artikuluarekin hain zuzen. "Behatokia" atalak María Luisa Jaussi Nievari, Berritzegune Nagusiko aholkulariari, egindako elkarrizketa aurkezten du eta hezkuntzaren arloan genero-indarkeriarekin zerikusia duten alderdiak lantzen ditu berarekin. "Tresnak" atalean tokiko jardunbide on bat aurkezten da: Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak emandako gomendioak zabaltzeko Ermuko erakunde arteko koordinazioaren esperientzia (III. Txostena). **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Genero eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Behatokiaren** lankidetzarekin jarri da abian "Beste behatoki batzuekin sarean" atal berria, Ángela Carmonak (Behatokiko presidentea) eta Cristina Fabrék (Berdintasun eta Genero Indarkeriaren Unitateko burua) eskainitako elkarrizketarekin.

Ekainean buletinaren 49. zenbakia heldu zen eta "Gaiak" atalean **Soledad Cazorla Prieto fiskala beka-funtsari** buruz Marisa Soleto Ávilari egindako elkarrizketa jaso zuen. Beka-funts hori genero-indarkeriaren ondorioz amarik ez dutenei zuzendutako laguntza-funtsa da, haien garapen pertsonalari, hezkuntza-laguntzari eta kaltea erreparatzeari bideratutakoa. "Behatokia" atalean 2017ko Zifren txostenaren aurrerapenean jasotako emaitza nagusiak azaltzen dira. "Tresnak" atalak Behatokiak duen Baliabideen atlasa sakontzen du. "Beste behatoki batzuekin sarean" atalak **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren** partaidetza izan du.

Azaroan argitaratu zen 50. zenbakia eta "Gaiak" atalak **"Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Paktua garatzeko premiazko neurriak"** jaso zituen. BGIBk egindako "Praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua" erakundearen lanari zuzendutako atalean zehaztuta dago. Leire Imaz Zubiaurri (Berdintasunerako zuzendaria EHUn) egindako elkarrizketari esker EHUK genero-indarkeriaren aurka duen protokoloaren berri izan dugu "Tresnak" atalean. "Beste behatoki batzuekin sarean" atalak **Andaluziako Genero Indarkeriaren Behatokira** hurbiltzen gaitu.

Buletinaren 51. zenbakia da 2018ko azkena eta **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana** jasotzen du "Gaiak" atalean. "Behatokia" atalak "2017ko zifrak txostenaren" bertsio osoaren argitalpena jasotzen du. "Tresnak" atala genero-indarkeriaren arloko interpreteen prestakuntza espezializatura bideratuta dago, SOS-VICS proiektuaren prestakuntzarako webgunearekin. Urtea amaitzeko, ohikoa den bezala, BGIBk **Beldur Barik** lehiaketarekin bat egin du **"Sarean"** atalean urtero egiten den ospakizunean.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

BGIB buletinaren 48. zk.

BGIB buletinaren 49. zk.

BGIB buletinaren 50. zk.

BGIB buletinaren 51. zk.

ñ. Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua

2018an *Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburuaren* laugarren edizioa argitaratu zen, aurreko hirurei gehituz; 2006an, 2010ean eta 2014an argitaratutakoak, hurrenez hurren. Behatokiak horrelako gidaliburu bat egiten du lau urtean behin, erakundearen eginkizunetako bati erantzunez:

“Antzeko beste erakunde batzuekin harremanak izatea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuetan abiarazitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea”

Aurreko edizioetako ikuspegiari jarraikiz, oraingoan ere praktika multzoa lau urteko berean egindako Gomendioen Txostenean identifikatutako hobetu beharreko alderdiekin zerikusia duten esperientziak aurkeztera bideratu da; kasu honetan Gomendioen III. Txostenean bildutakoak. Gidaliburua modu paraleloan egituratuta dago eta genero-indarkeriaren prebentzio, errealtatearen ezagutza eta laguntzarekin zerikusia duten 21 praktika eta esperientzia aurkezten ditu guztira. Multzo horren atzean daude gomendioen formulazioa ardaztu zuten hiru gaiak: genero-indarkeria emakumeen giza eskubideen urraketatzat hartzea, premia bereziak dituzten kolektiboak ikusaraztea eta adingabeak genero-indarkeriaren biktimatatzat aitortzea.

Aipatutako esperientziak estatu, autonomia-erkidego eta toki mailan garatu dira eta nagusiki alor instituzionalean jarri dira abian.

Ondoren, gai bakoitzean bildutako praktika eta esperientzien edukia eta ezaugarri nagusiak laburtu dira; hainbat esparru eta dimentsiotan egituratuta agertzen dira:

Prebentzioa:

- **Ahalduntzea:** Emakumeen Topalekuak Bizkaian esperientzia aurkezten da; tokiko udal-erakundeek kudeatutako edo kogestionatutako bost gune dira eta honako hauen alde egiten duten inguruneak sortzen dituzte: berdintasunaren aldeko topagunea, emakume-elkarteak, banakoen eta taldeen ahalduntzea, feminismoa, partaidetza soziopolitikoak, kultura, genero-indarkeriaren aurkako zerbitzuak ematea... Bost gune horietatik lautan Ahalduntze Eskola dago.



- **Sentikortzea eta informazioa ematea:** alor honetan hiru praktika aukeratu dira; lehena sexu-indarkeriaren aurka prebenitu, sentsibilizatu eta esku hartzera bideratua; bigarrena genero-indarkeria pairatzen duten eta dibertsitate funtzionala duten emakumeei edo kasu horien berri duten pertsonen zuzendua, eta hirugarrena herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko diseinatu, lurraldean emakumeen aurkako indarkeria noraino heltzen den erakusten duen Bizkaiko mapa, modu berritzailean salaketa-gunea kaltegileengan jarritz.

Errealitatea ezagutzea:

- **Datuen erregistroa:** atal honek emakumeen aurkako indarkeriaren biktime direnen datu pertsonalen tratamenduari erreparatzen dio eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak horren harira egindako gida aurkezten du.
- **Ikerketa eta hedapena:** atal honetan jasotako lehen praktika da ACVG (Genero Indarkeriaren Aurkako Artea), artearen eta teknologiaren bitartez genero-indarkeriaren aurka egiteko web plataforma, Valentziako Unibertsitate Politeknikoak bultzatua. Ikerketaren eta hedapenaren alorreko beste bi aukerak hautemate eta ebaluazio tresnekin lotutakoak dira: bikote-harremanetako berdintasun edo desberdintasun mailari buruzko autodiagnostikoa eta genero-indarkeriaren hasierako arrisku psikologikoen auzitegi-balorazioa.

Laguntza:

- **Zerbitzuak:** genero-indarkeriaren biktime diren adingabeekin zerikusia duten bi esperientzia jasotzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren familian esku hartzeko programa espezializatua eta genero-indarkeriaren ondorioz erailak izan diren emakumeen seme-alabei krisi-egoeretan laguntza psikologikoa emateko Emakumearen Andaluziako Institutuaren zerbitzua. Atal honetan jasotako beste esperientzietako bat da indarkeriari bizirauteko drogak hartzen dituzten emakumeetan oinarritzen dena. Atal honetan jasotako ekimen sortaren artean daude alor sektorialeko bi praktika (gizarteratzea eta laneratzea, eta osasun-arloa) eta bi ikuspegitatik animaliak aintzat hartzen dituzten bi esperientzia: VioPet programa, genero-indarkeria gertatzen den familietan bizi diren eta horren biktime bilakatzen diren animalien harrera egiteko; eta "Laguntza judizialerako txakurra" programa, hainbat egintza juridikotan genero-indarkeriaren eta/edo sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko, haien antsietate eta estres maila murrizteko.
- **Profesionalen prestakuntza:** genero-indarkeriaren biktimekin lan egiten duten interpreteentzako prebentzioko eta autolaguntzako estrategiekin zerikusia duen praktika bat eta genero-indarkeria koordinatzeko gako gaitasunen Europako curriculum osatzera bideratutako prestakuntza-ekimen bat dira kapitulu honetan bildutako esperientzietako bi. Hirugarrena emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzen dieten profesionalentzako "Jabetuz" prestakuntza-programa da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearena, 2018ko martxoan zortzigarren edizioa bete zuena.

- **Koordinazioa:** Ermuko Udalak burututako egitasmoa aurkeztu da, BGIBren “Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean erakundeek jarduera hobetzeko gomendioak eta proposamenak III. txostena Bizkaian” txostenaren azterketari eta hedapenari buruzkoa, tokiko koordinazio-protokoloaren testuinguruan. Atal honetako bigarren praktika autonomia-erkidegoan kokatzen da, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako laguntzaren nazioarteko kalitate-estandarrak EAEn alderatzeko eta txertatzeko garatutako programa, hain zuzen: indarkeria jasaten duten emakumeentzako eta haurrentzako oinarritzko zerbitzuen paketea (NBE).

Gainera, hainbat alorretan erabili daitezkeen *tresna* izan daitezkeen egitasmoak azpimarratzen ditu gidaliburuak atal batean. Amaitzeko, aurreko edizioetan lege, egun funtzionamenduan dauden genero-indarkeriaren behatokiak biltzen ditu eranskin batean.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, egitasmoen eta esperientzien IV. gidaliburua, 2018

BIZKAIKO
GENERO
INDARKERIAREN
BEHATOKIA

**2018KO
JARDUERA-
MEMORIA**

http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_indarkeria/eu_index.html
ovgb.bgib@bizkaia.eus